

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN, ERAKUNDE HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN SAILA

Gazteria Zerbitzua

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza deialdiaren oinarriak, 18 eta 30 urte bitarteko Vitoria-Gasteizko gazteei frantseseko eta alemaneko B2 mailako eta ingeleseko, frantseseko eta alemaneko C1 mailako titulazio ofizialak lortzeko tasaren gastuen zati bat ordaintzen laguntzeko

Sarrera

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak, bertan aurreikusitakoaz gain, honako hauen arabera arautuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua), eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra zeinaren helburua baita Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozedura arautuko duten oinarri orokorrak ezartzea. Ordenantza horri 2023ko apirilaren 21an eman zitzaion hasierako onespena, eta 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen.

1. Dirulaguntzen ildoak

Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuen Vitoria-Gasteizko 2025-2027 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa, 2025eko urtarrilaren 17an. Plan hori aldatu egin zen 2025eko otsailaren 21ean, 2025eko ekainaren 20an eta 2026ko uztailaren 24an.

Deialdi hau plan horren 01_07 dirulaguntza-ildoari dagokio: "Vitoria-Gasteizko 18-30 urte bitarteko gazteek frantseseko eta alemaneko B2 titulu ofiziala eta ingeleseko, frantseseko eta alemaneko C1 titulu ofiziala lortzeak eragindako gastuen zati bat ordaintzeko dirulaguntzak emateko deialdia" zeinaren helburu estrategikoa baita 18 eta 30 urte bitarteko Vitoria-Gasteizko gazteen artean ingelesaren, frantsesaren eta alemanaren ezagutza sustatzea, haien hizkuntza-gaitasunak hobetzeko eta, halaber, hiriko gazteen emantzipazioa errazteko beharrezko baliabideak hobetzeko, hizkuntza-titulazioek enplegarritasuna errazten baitute. Udalaren V. Gazte Planean jasotzen den bezala, emantzipazioa funtsezko jarduera-eremua da Gazteria Zerbitzuarentzat. Hala, laguntza honi esker osatu egiten dira gaur egun Vitoria-Gasteizko Udalean martxan diren ekintzak 18 eta 30 urte bitarteko gasteiztar gazteen emantzipazioa bultzatzeko.

2. Deialdiaren xedea

2.1. Deialdi honen helburua da 18 eta 30 urte bitarteko Vitoria-Gasteizko gazteei frantseseko eta alemaneko B2 mailako eta ingeleseko, frantseseko eta alemaneko C1 mailako titulazio ofizialak lortzeko tasaren gastuen zati bat ordaintzen laguntzea, jarraian zehazten diren baldintzen eta betekizunen arabera.

2.2. Ez dira deialdi honen xede izango:

- a) Dagokien azterketa gaingitu ez duten pertsonak.
- b) Adin-baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak.
- c) Adierazitako epean Vitoria-Gasteizen erroldatuta ez dauden pertsonak.
- d) Deialdian ezarritako epetik kanpo eskuratutako titulazioak.

e) Frantseseko eta alemaneko B2 mailako titulazio ez-ofizialak, eta deialdi honetan jaso ez direnak.

f) Ingelesko, frantseseko eta alemaneko C1 mailako titulazio ez-ofizialak, eta deialdi honetan jaso ez direnak.

3. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak Gazteria Zerbitzuaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuko 2026/0116.2371.48937 partidako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; gehienez 15.000,00 euro baliatu ahal izango dira horretarako.

Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamenduaren 58. artikuluekin bat etorritz (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa), berariaz jaso da zenbateko gehigarri bat ezartzeko aukera, eta zenbateko hori dirulaguntzari aplikatzeko ez da beharrezkoa izango beste deialdi bat egitea.

Zenbateko gehigarria gauzatzekotan aski kreditu izan beharko du erabilgarri, aipatutako 58. artikuluan jasotako inguruabarren ondorioz, eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan.

Deialdiaren aurrekontu-kreditua agortu arte esleituko dira laguntzak.

4. Onuradunak

Deialdi honetan parte hartu dezakete 18 eta 30 urte bitarteko gazteek (9.3 atala), baldin eta Vitoria-Gasteizko udalerrian erroldatuta badaude, deialdi honen 9.4 atalean jasotzen den bezala.

5. Laguntzaren xede diren tituluaren ezaugarriak

5.1. Diruz lagunduko dira frantseseko eta alemaneko B2 titulu ofizialak eta ingelesko, frantseseko eta alemaneko C1 titulu ofizialak. Kontuan hartuko da oinarri hauen 17. atalean ("Laguntza honen eskabidean onartutako hizkuntzen Europako erreferentzia-markoko frantseseko eta alemaneko B2 mailaren eta ingelesko, frantseseko eta alemaneko C1 mailaren baliokideak diren tituluak eta ziurtagiriak") adierazitako baliokidetasuna, hizkuntza-mailak egiaztatzen dituzten titulu eta ziurtagiriaren eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bate-ratuko mailen artekoa.

5.2. Epealdi honetan eskuratutako titulua izan beharko da: 2025eko urriak 1 eta laguntza-eskabi-deak aurkezteko epea amaitzen den eguna (9.5 atala).

6. Parte hartzeko debekua

Ezin dira dirulaguntzen onuradun izan dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 11.2 artikuluan edo Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako egoeretan dauden pertsonak. Horien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak:

a) Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jaso izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekua jaso izana; bereziki, berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko eta/edo generoagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeari buruzko Legearen xedatutakoaren arabera (1/2023 Legegintzako Dekretua).

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea. Eskakizun hori beteta eduki beharko da dirulaguntza ematen den unean, ordaintzeko obligazioa onartzen den unean eta dirulaguntza ordaintzen den unean. Vitoria-Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko du hori, salbu eta onuradunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanez.

7. Eskabideak eta agiriak

7.1. Aurkezteko epea.

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea hogeit hamar egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da epea.

7.2. Dokumentazioa.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko dute deialdi honetan parte hartu nahi duten pertsonak:

a) Laguntzaren eskabidea (1. eranskina). Titulua eskuratu duen pertsonak eskatu behar du laguntza (garrantzitsua da 1. eranskinetako dokumentua behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztea).

b) Gazte eskatzaileak ezin badu laguntza eskatu, ezinbesteko kausagatik, eskabide-ordezkaritzaren eredia aurkeztu beharko du (1. eranskina).

c) Titulua eskuratu duen pertsonaren NANaren kopia.

d) Eskatzailearen NANaren kopia, baldin eta ez badator bat titulazioa lortu duen pertsonarekin, azken horrek ezin izan duelako eskatu, ezinbesteko kausagatik.

e) Titulua eskuratzeko ordaindu izanaren agiria.

f) Eskuratutako titulu ofizialaren kopia. Titulu ofiziala oraindik jaso ez bada, titulua eskuratu duela egiaztatzen duen agiria.

g) B2 edo C1 titulazioa lortu duen pertsonaren izenean dagoen banku-kontuaren titulartasunaren ziurtagiria.

h) Beste deialdi batzuetan helburu bererako dirulaguntza eskatu dela —edo ematea ebatzi dela— egiaztatzen duen dokumentazioa eta horren zenbatekoa, kofinantzatzea aurreikusten bada.

7.3. Informazioa.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia <https://v-g.eus/hizkuntzadirulaguntzak> webgunean egongo da eskuragarri, baita Vitoria-Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, ordutegi ofizialaren barruan.

Dirulaguntza-eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo daturen bat falta badu, edo eskatutako agiriren bat aurkeztu ez bada, akatsa konpontzeko eskatuko zaio eskatzaileari, gehienez hamar egun balioduneko epe luzaezinean. Adieraziko zaio hala egin ezean bertan behera utziko dela eskabidea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

Gazteria Zerbitzuak argibideak eskainiko dizkie deialdi honen baitan dirulaguntza eskatu nahi duten pertsonak. Kontsultak hemen egin daitezke:

- gazteen argibideetarako udal bulegoan.
- telefonoz: 945 16 13 30 edo 626 744 936 (whatsapp bidez bakarrik).
- posta elektronikoz: infogaztea@vitoria-gasteiz.org.

7.4. Izapideak.

Bide hauetakoren baten bitartez aurkeztu ahal izango dira eskabideak:

— Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan. Horretarako, identifikazio-txartel digital bat erabili beharko da.

— Herritarrei Arreta Emateko bulegoetan, dokumentazio guztia pendrive batean formatu digitalean eramanez. Herritarrei laguntzeko bulegoko langileek dokumentuak erregistratuko dituzte, eta euskarri digitala itzuliko diote interesdunari.

— Baita Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako beste edozeinetan ere.

8. Gerora sortutako egoerak

Eskaera egiteko dauden 20 egun baliodunetan aldatu egiten bada eskatzailearen egoera pertsonala (eskaera egitean ez zegoen "emantzipatuta," eta 20 eguneko epearen ondoren, bai), beste idazki bat aurkeztu beharko du gertakariak azaltzeko eta dagozkion egiaztagiria aurkezteko.

9. Dirulaguntzak emateko prozedura, eta zenbatekoa

9.1. Laguntzaren xede den azterketa gaindituta edukitzea.

9.2. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da 150,00 eurotik gorakoa izan, titulu eta pertsona bakoitzeko. Azterketa egiteko tasen zenbatekoa ez bada 150,00 eurora iristen, azterketa egiteko ordaindutakoaren zenbatekoa ordainduko da.

9.3. Titulazioa eskuratzeko unean, 18 eta 30 urte bitarteko adina izan behar da.

9.4. Vitoria-Gasteizen erroldatuta egon behar da 2025eko irailaren 1etik laguntza-eskabideak aurkezteko epea amaitu arte. Udalak ofizioz eskatuko ditu eskatzailearen errolda-datuak.

9.5. Titulazioa 2025eko urriaren 1etik eskabidea aurkezteko epea amaitu arteko epean eskuratu izan beharko da.

9.6. Deialdi honen xede diren tituluak ofizialak izan behar dira. Kontuan hartuko da 17. atalean ("Laguntza honen eskabidean onartutako hizkuntzen Europako erreferentzia-markoko frantseseko eta alemaneko B2 mailaren eta ingelesko, frantseseko eta alemaneko C1 mailaren baliokideak diren tituluak eta ziurtagiriak") adierazitako baliokidetasuna, hizkuntza-mailak egiaztatzen dituzten titulu eta ziurtagirien eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailen artekoa.

9.7. Lehentasuna dute gazte "emantzipatuak" (10. puntuan definitzen da "emantzipatu" kontzeptua).

9.8. Laguntzak hainbanatu egingo dira aurkeztutako eskabideen artean, deialdiaren aurrekontu-kreditua agortu arte (15.000,00 euro).

9.9. Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak izango dira onuradunak titulu bera eskuratzeko jaso ditzakeen beste dirulaguntza batzuekin. Dirulaguntzaren eskabidean, laguntza-eskabidera aurkezten den titulua eskuratzeko egindako dirulaguntza eskaera guztiak zerrendatuko dira.

Dena den, dirulaguntzen eta bestelakoen bitartez lortutako finantzazioaren kopuru osoak ezin izango du titulua eskuratzeko tasen kostu osoa gainditu. Hala gertatuz gero, modu proporzionalean murriztuko da emandako dirulaguntza, deialdi honen ildotik.

10. Balioespen-irizpideak

Ez da balioespen-irizpiderik ezarri. Deialdira bideratutako gehieneko zenbatekoa (15.000,00 euro) hainbanatu egingo da, lehenbizi gazte "emantzipatuen" eskaera guztiei erantzuteko. Dirua soberan badago, gainerako eskatzaileen artean ("emantzipatu" gabeko gazteak) hainbanatuko da. Banaketa-sistema: hainbanaketa.

Deialdi honetarako, hala definitzen da pertsona "emantzipatua": Gurasoen edo legezko tutoreen etxean bizi ez diren pertsonak. Emantzipatua dela frogatzeko, gurasoen edo tutoreen bizilekutik kanpo bizi dela egiaztatzen duen errolda-ziurtagiria aurkeztu behar da. Udalak ofizioz egiaztatuko du jasotako informazioa benetakoa dela.

11. Eskabideak balioetsi, bideratu eta ebazteko eskumena duten organoak

Gazteria Zerbitzuko hiru teknikarik osatuko dute eskabideak balioetsi eta dirulaguntzak emateko proposamena egiteko organo kolegiatu eskuduna: Oskar Fernández Jaras (Gazteria Zerbitzuko burua), Estíbaliz Sanz del Campo (Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoko arduraduna) eta Nerea Abad Barquero (Gazteria Zerbitzuko teknikaria). Gazteria Zerbitzua izango da organo

instrukzio-egilea, eta ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena egiteko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro. Organo instrukzio-egileak dirulaguntzak emateko proposamena aurkeztuko dio ebazteko eskumena duen organoari. Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkariak izango du dirulaguntzak ematea ebazteko eskumena, Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarren 2025eko maiatzaren 16ko eskumenak eskuordetzeari buruzko erabakiarekin bat etorritz.

12. Ebazpena argitaratzea

Deialdi honen ebazpena udalaren iragarki-taula digitalean eta ALHAOean itaraturiko da. Dirulaguntzei buruzko odenantzaren 24. artikuluan adierazita dagoen moduan.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta horren aurka dagozkion errekurtsoak jarri ahal izango dira.

13. Ordaintzeko modua

Ordainketa bakarraren bidez ordainduko da dirulaguntza, organo eskudunak dirulaguntzaren behin betiko ebazpena onartu ondoren.

Dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da laguntzaren onuradunaren kontu korrontean, zeina eskabidean adierazi baita, titulazioa eskuratu duen aldetik. Kontu korrontearen titulertasunak bat etorri behar du laguntzaren xede den titulazioa eskuratu duen gaztearekin.

14. Datuak egiazkoak ez izateaz

Eskabidean eman beharreko datu guztiak ez emateak edo daturen bat nahiz eransten diren agirietakoren bat faltsu izateak eskabidea baliorik gabe uztea ekarriko du berekin, eta eskatzailaren gain eroriko dira erantzukizunak.

15. Bestelako xedapenak

Prozedurari buruz oinarri hauetan arautu gabekoei dagokionez, dirulaguntzen ordenantza orokorrean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan xedatutakoa aplikatuko da.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren dirulaguntza eta laguntzak Vitoria-Gasteizko Udalaren gardentasun atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak.

16. Onuradunen betebeharrak

Onuradunek honako hauek bete beharko dituzte:

a) Eskuratutako titulurako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, jakinaraztea. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri, eta, betiere, justifikazioaren aurretik.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Eskakizun hori beteta eduki beharko da dirulaguntza ematen den unean, ordaintzeko obligazioa onartzen den unean eta dirulaguntza ordaintzen den unean. Vitoria-Gasteizko Udalak ofizioz egiaztatuko du hori, salbu eta onuradunak horren aurka egiten badu, arrazoiak emanaz.

17. Laguntza honen eskabidean onartutako hizkuntzen Europako erreferentzia-markoko frantseseko eta alemaneko B2 mailaren eta ingeleseko, frantseseko eta alemaneko C1 mailaren baliokideak diren tituluak eta ziurtagiriak

17.1. Ingelesa C1:

- Certificate in Advanced English (CAE).
- Trinity College C1 – ISE III.

- HEO Maila Aurreratuko Ziurtagiria C1.
- PTE General: Pearson Test Of English (Level 4).
- BEC Business English Certificate-Cambridge (HIGHER Good & Exceptional).
- IELTS 7.0 /8.0 (British Council).
- Aptis ESOL Avance (British Council).

17.2. Frantsesa B2:

- HEO Tarteko Maila B2.
- El Diplôme d'Études en Langue Française (DELF) B2.
- CertAcles B2.
- TCF (Test de Connaissance du Français) (400/499 puntos).

17.3. Frantsesa C1:

- HEO Maila Aurreratua C1.
- DALF.
- Diplôme Approfondi de Langue Française DALF C1 (CIEP).
- Diplôme Supérieur d'Études Françaises Modernes (DS) (AF).
- DSLCF (Diplôme Supérieur de Langue et Culture Françaises).
- DFA2 (Diplôme de Français des Affaires 2).
- DFP Affaires C1 (Diplôme de Français Professionnel dans le Monde des Affaires C1).

17.4. Alemana B2:

- HEO Tarteko Maila B2.
- Goethe-Zertifikat B2.
- TELC Deutsch B2.

17.5. Alemana C1:

- HEO Maila Aurreratua C1.
- Goethe-Zertifikat C1 (ZMP).
- Prüfung Wirtschaftsdeutsch International.
- Zentrale Mittelstufenprüfung (ZMP).
- TELC Deutsch C1.
- Oberstufe Deutsch.
- TestDaf Niveaustufe Nivel 4 y 5.
- Deutsche Sprachprüfung für den Hochschulzugang (DSH).

Vitoria-Gasteizen, 2026ko uztailaren 24an

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

SATI_002

C1 Ingeleseko, frantseseko eta alemaneko eta B2 frantseseko eta alemaneko titulu lortu dutenen Gasteizko Udalarir dirulaguntza eskatzeko orria.
Solicitud de ayuda para el título C1 de inglés, francés y alemán, B2 francés y alemán.

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila
Departamento de Alcaldía, Relaciones Institucionales e igualdad
Gazteria Zerbitzua
Servicio de Juventud

Tel.: 945 16 13 30
infogaztea@vitoria-gasteiz.org

TITULUA LORTU DUEN PERTSONAREN IZENA - NOMBRE DE LA PERSONA QUE HA OBTENIDO EL TÍTULO

Izen-deiturak – Nombre y apellidos

1. abizena Apellido 1	2. abizena Apellido 2	NAN/AIZ DNI/NIE
Izena Nombre		

Helbidea – Dirección

Kalea Calle	Zenbakia Número	Letra Letra	Eskailera Escalera
Solairua Piso	Atea Mano	Posta-kodea Cód. Postal	Herria Población
Udalerria Municipio	Lurraldea Provincia		
1. telefonoa Teléfono 1	2. telefonoa Teléfono 2	Posta elektronikoa Correo Electrónico	

ADMINISTRATIOAREN AURREKO ORDEZKARIAREN DATUAK (Titulua lortu duen pertsona berdina ez bada) DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE ANTE LA ADMINISTRACIÓN (Si no es la persona que ha obtenido el título)

Izen-abizenak / Enpresaren izena – Nombre y apellidos / Razón social

1. abizena Apellido 1	2. abizena Apellido 2	NAN/AIZ/IFZ DNI/NIE/CIF
Izena / Enpresa izena Nombre o Razón Social		

Helbidea – Dirección

Kalea Calle	Zenbakia Número	Letra Letra	Eskailera Escalera
Solairua Piso	Atea Mano	Posta-kodea Código Postal	Herria Población
Udalerria Municipio	Lurraldea Provincia		
1. telefonoa Teléfono 1	2. telefonoa Teléfono 2	Posta elektronikoa Correo electrónico	

TITULUA LORTU DUEN PERTSONAREN BANKETXEKO DATUAK - DATOS BANCARIOS DE LA PERSONA QUE HA OBTENIDO EL TÍTULO

Finantza-erakundea – Entidad Financiera	IBAN	F.E.Kodea Código E.F.	Bulegoa Sucursal	KZ - DC	Kontu-zenbakia - Número de Cuenta

AURKEZTEN DIREN AGIRIAK - DOCUMENTACIÓN QUE SE PRESENTA

- ☐ Titulua lortu duen pertsonaren NANaren kopia.
Copia del DNI de la persona que ha obtenido la titulación.
- ☐ Dirulaguntza eskatzen duen pertsonaren NANaren kopia, titulua lortu duen pertsona ez bada.
Copia del DNI de la persona solicitante, si no coincide con la persona que ha obtenido la titulación.
- ☐ Titulua lortzeko ordainutakoaren ziurtagiria.
Justificante del pago para la obtención de la titulación.
- ☐ Lortutako titulu ofizialaren kopia. (Titulua oraindik jaso ez bada, titulua lortu dela ziurtatzen duen agiria).
Copia del título oficial obtenido. (Si aún no se ha recibido la titulación oficial, justificante que acredite que ha obtenido la titulación).
- ☐ Bankuko Konturen titulartasun agiria.
Certificado de titularidad de cuenta bancaria.
- ☐ Helburu bererako beste dirulaguntza-deialdi batzuetan eskabidea egin bada edo dirulaguntza lortu baldin bada, hori egiaztatzen duen dokumentazioa, eta zenbatekoa, baldin eta batera finantzatzea aurreikusten bada.
Documentación acreditativa de otra solicitud o de la resolución de otras convocatorias de subvención para el mismo fin y su importe, en caso de que se prevea cofinanciar el mismo.

BERE ERANTZUKIZUNPEAN AITORTZEN DU – DECLARA BAJO SU RESPONSABILIDAD

- ☐ Ezagutzen eta onartzen dituela laguntza ekonomikoak eta diru-laguntzak emateko udal programaren barruan aurkeztu nahi duen deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak, eta bete egingo dituela.
Conocer, aceptar y cumplir los criterios fijados en las bases de la convocatoria a la que se presenta dentro del Programa Municipal de Ayudas Económicas y Subvenciones.
- ☐ Ordaindu beharreko zergak ordainduta dituela, baita Gizarte Segurantzako Diruzaintzan ere, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2. artikulutik eratorritako gainerako inguruabarrek betetzen dituela.
Estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias y con la Tesorería de la Seguridad Social y demás circunstancias derivadas del artículo 13.2 de la Ley general de Subvenciones.
- ☐ Pertsona emantzipatua naizela.
Que soy una persona emancipada. (1)

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 10/7/2026



C1 Ingeleseko, frantseseko eta alemaneko eta B2 frantseseko eta alemaneko titulu lortu dutenen Gasteizko Udalari dirulaguntza eskatzeko orria.
Solicitud de ayuda para el título C1 de inglés, francés y alemán. B2 francés y alemán.

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila
Departamento de Alcaldía, Relaciones Institucionales e igualdad

Gazteria Zerbitzua
Servicio de Juventud

Tel.: 945 16 13 30
infoqaztea@vitoria-gasteiz.org

(1) Pertsona Emantzipatutzat ulertzen dena, dirulaguntzen oinarrietan jasotzen da.
En las bases de la convocatoria se recoge lo que se entiende por persona emancipada.

GASTEIZKO UDALARI BAIMENA EMATEN DIO – AUTORIZA AL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

ADIFRAZI HEMEN – MARQUE AQUI

☐ Konkurrentziatik eratorritako komunikazio ofizialak posta elektronikoz jasotzeko, Administrazio-prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. eta 41. artikuluen arabera. *Recibir las comunicaciones oficiales por correo electrónico, derivadas de su concurrencia, conforme a la Ley PAC 39/2015, artículos 40 y 41.*

Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 6.2 artikuluekin bat etoriz, **Uda-** *De conformidad con el artículo 6.2 de la Ordenanza Municipal de Sub-*
lazio ofizioz kontsultatuko ditu eskatzaileen nortasun-datuak, Poli- *versiones, el Ayuntamiento consultará de oficio los datos de*
ziazaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. *identidad de las personas solicitantes a través de la Dirección*

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 92.1 d) artikulua, *De conformidad con el artículo 92.1 d) de la Norma Foral General Tributaria de Álava, artículo 23.3 de la Ley General de Subvenciones y*
Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 23.3 artikulua eta *Administración Procedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2*
artikulua arabera, **Udalak ofizioz eskatuko du Foru** *artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común, el Ayuntamiento recabará de oficio el certificado de estar al*
Ogasunarekiko zerga-betebeharrak ordaindita dituela egiaztatzen *corriente de pago en las obligaciones tributarias con la Hacienda*
duen ziurtagiria. *Foral.*

Administrazio artikulua	Prozedura arabera, eskatzailea ez dago	Erdiaren 39/2015	Legearen 28.2	De conformidad con el artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común, la persona solicitante no muestra
Zuzendaritza	Nagusia	nortasun-datuak	eta	oposición a que el Ayuntamiento consulte los datos de identidad
Segurantzaren zuzendaritza	Diruzaintza	ordainketan egunean	egotearen	de la Dirección General de la Policía así como los certificados de
ziurtagiriak	kontsultatzaren aurka.			estar al corriente de pago con la Tesorería de la Seguridad

Aurkakotasuna adieraztekoan, adieraz ezazu zergatik:

De mostrar oposición, indique el motivo aquí:

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, (e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de

(*)

Inprimakia sinatu aurretik, hurrengo orrialdean agertzen den datuen babesari buruzko informazioa irakurri beharko duzu.

Antes de firmar el formulario, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.

Equinemathe-data - Fecha de actualización: 10/7/2026


www.vitoria-gasteiz.org

SATI_002

C1 Ingeleseko, frantseseko eta alemaneko eta B2 frantseseko eta alemaneko titulu lortu dutenen Gasteizko Udalari dirulaguntza eskatzeko orria.
Solicitud de ayuda para el título C1 de inglés, francés y alemán, B2 francés y alemán.

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila
Departamento de Alcaldía, Relaciones Institucionales e igualdad
Gazteria Zerbitzua
Servicio de Juventud

Tel.: 945 16 13 30
infogaztea@vitoria-gasteiz.org

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA
INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK - CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto de la persona responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba/Álava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak <i>Contacto de la pers. Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Udal zerbitzuei dagokienez herritarren eskakizunak artatzea, eta udal-eskumeneko prozedurak izapidetzea, 39/2015 legean aurreikusitakoarekin bat etorrira. <i>Atender las solicitudes de la ciudadanía en relación con los distintos servicios municipales, así como la tramitación de los distintos procedimientos de competencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la ley 39/2015.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza. DBAOk 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. <i>Ley General de Subvenciones y Ordenanza municipal de subvenciones. Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Entidades/Personas Destinatarias</i>	Datuak hirugarren bati komunikatu dakizkioke –soil-soilik Gasteizko Udalaren eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzenean lotura duten xedeak betetzeko eta datu pertsonalen jabeak baimena ematen duenean–, baita legeak datuak komunikatu beharra agintzen duen erakunde eta organoei ere. <i>Los datos podrán ser cedidos a tercera entidades para el cumplimiento de fines directamente relacionados con funciones legítimas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de la entidad cesionaria, así como a las entidades u organismos a los que exista obligación legal de realizar comunicaciones de datos.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Era berean, gorde egongo dira pertsona interesdunarekin izandako harremanetik eratorri litekeen errekamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesdunak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la persona Delegada de Protección de Datos.</i>

Eguneratze-data - Fecha de actualización: 10/7/2026